


Dena hankaz gora



Testua eta ilustrazioak: **Anne Derenne**

Itzulpena: **Fernando Rey**

Saila: **Album irudidunak. Liburu interaktiboak**

Gaiak: jolas-liburua, liburu interaktiboa, umorea, behaketa, Afrika, animalia basatiak, sabanako animaliak. Animalien defentsa, ekologia.

IBIC: YBC (Album ilustratuak) | THEMA: YBC (Haur liburu ilustratuak)

Azal gogorra | 21 x 25,5 cm. | 28 or. | Salneurria: 16,00 €

ISBN: ISBN: 978-84-9172-463-6

HIZKUNTZA HAUETAN ERE: gaztelaniaz, galegoz, katalanez



Liburu dibertigarria, irakurleen parte-hartzea ezinbestekoa duena sabanako animaliei laguntzeko.

Egun lasaia da sabanan. Bakoitza bere tokian dago, elafantea izan ezik, trostaka hurbildu baita eta, horrela, bere pausoekin dena burrunbaz eta dardaraz bete. Baina berehala ohartu da hondamendiaz: HANKAZ GORA dago dena. Orduan iritsi da ume irakurleen unea, umeak baitira album honen egiazko protagonistak: haiek behin eta berriz astindu beharko dute liburua dena bere onera itzul dadin. Astinaldi bortitzegia baldin bada, paisaia hankaz gora jarriko da. Astinduak arinegiak badira, gauza batzuk tokitik kanpo geldituko dira oraindik. Goitik behera, ezker-eskuin... Baina nor ote dago zuhaixkaren atzean ezkutaturik? Ehiztari bat? Jarrai dezagun liburua astintzen ehiztariak ospa egin dezan!

Kolore bizi-bizikiak, hondo lauaren gaineko irudi ongi mugatuak eta aurpegiera dibertigarriko pertsonaiak nabarmentzen dira Anne Derenneren plastizitate handiko liburu honetan. Animazio-produkzioak ere oroitarazten dizkigu. Liburu originala da, jostatzeko, umorez betea, irakurleari parte hartzeko gonbita egiten diona sabanan bizi diren animaliei laguntzeko, istorioak amaiera ona izan dezan. Gozatu abenturaz!

Anne Derenne

Madriilen bizi den idazle eta ilustratzaile frantsesa, txikitatik marrazten duena adierazpide gisa. Gaur egun, animazioan eta ilustrazioan aritzen da haur zein helduentzat, eta sari mordoxka irabazi du. Hainbat aldizkari eta egunkaritan argitaratu ditu bere lanak (*Le Monde, Le Temps, Le Pèlerin, Nectart...*), eta nazioarteko erakundeekin eta GKEekin kolaboratu ohi du, adibidez Cartooning for Peacereantzat, UNESCOrentzat edo Greenpeacearentzat.



Dena hankaz gora

